

## Literatura →

## Durduza arazlea

## Irtxe Esnaola

Irene Nemirovski (Kiev, 1903 - Auschwitz, 1942) XX. mendeko idazle talentudunenetakoa da. Haren bizia erruz aztertuta izan da, eta haren obra ezagutzen duenak, gutxiago edo gehiago, oroitu du haren bizitzako zertzeladarrak: pasarte gozoak — aberrat berrien aberastasunean hezi zela; dantzaldiak eta festak —; baita garratzak ere — jazarri, deportatu eta kontzentrazio esparru batean erail zutela —. Zabala eta aberatsa du obra. Egilea hil ondorena ezaugarazi zuten *Suite frantsesa* da, apika, haren lanik ezagunena. Zaleek ezagun dituzte euskaratutako beste obrak: *Dantzaldia* eta *Ari-men maisua*. Eskerga da autoreaz idatzi dena. Askok, kontakizunen esplikazioa haren biografian aurkitu dute, eta edizioen gibel solasetan eta hitzurreetan hala interpretatu. Halakorik ukatu gabe, usate dut merezi duela kortse biografiko batzuetan estuegietafik aske irakurtzea haren lanak. Maisu izandakoen bizitzaren gaineko informazioa handia izanda ere, benetako bizia idazkeran dago.

2009an argitaratu ziren hamabi

ipuinok lehen aldiz elkarrekin. Batzuk zenbait aldizkaritan azalduak ziren 30 eta 40ko hamarkadetan, eta beste batzuk, II. Mundu Gerran ezizenez sinatuak, eskuizkribu moduan merkaturatu gabe zeuden oraindano. Idazteak, Nemirovskiren eskuetan, esan nahi du irakurlea istorioan sarraraztea tximistaren abiaduran, hasieratik muinera abiatzea. Idazteak zailtasunik ez duela iradokitzen du egilearen maisutasunak. Deskribapen biziak, zentzumen guztiei erantzunez. Narratzaile orojakilearen abantailak kudeatzen ditu harremanen bazter ezkutak agerian jartzeko, sarri emakumeenak. Ama-alaben artekoa, adibidez. Aipatutako erreferentzia biografikoei atxikiz, ezaguna da Nemirovskik amarekiko sentitzen zuen amorrua, eta amak haurtzaroan sufriarazi zion abandonua izaltzen da haren lanetan. Hala ere, *Zinema mintzaturia* ipuinean eta *Egoerak behartuta* deiturikoan, alabari ongizateagatik esfortzuak egiten dituzten amak ageri dira. Nolanahi dela, emakume zein gizon protagonistei ezin zaie begirada uniformerik luza. Askotarikoezia da egilea bere hautuetan.

*Laguna eta emaztea* ipuinean, emakume egoista, maltzur, limurtzaile, diru eta sexu zalea arbutuzen da? Edo, epaitu gabe, baina nahita gizon burgoiaren ikuspuntuaren kontatuta, ironiari atea zabaltzen dion sententzia gupidagabe bat da? Badira emakumeak benetako maitasuna uste zutena galdu eta oroitzapenak edertzen dituztenak, senarrak sekretuki amorrarazten dituzten bitartean. *Birjinak* ipuinean, ama eta emazte abandonatu bat hiru neskazaharrekin elkartzen da. Horiek gizonik gabeko bizimoduaren eta autonomiaren alde daude. Ema-



## ‘BIRJINAK’

- Egilea: Irene Nemirovski.
- Itzultzailea: J. A. Sarasola.
- Argitaletxea: Alberdania.

kume ezkongabeen aldeko apologia dirudi, baina maitasunaren plazer zukutsuen defentsak bihurtzen da. Gizon protagonisten artean ere, aniztasuna da nagusi. Laguntasun eta solidaritate pasarteak (*Beldurra*); idazle gizonen harrokeria agerian uzten dutenak (*Oihartzuna*, *Ezezaguna*). Komunian dituzte denek garaik asiguratutako genero rola: familien mantenua eta gerrara joan beharra. Lehen Mundu Gerraren presenzia, Bigarren Gerra gainean dutela, sarri azaltzen da. Paris bezala landan, bizimodu txiro eta mingostua daramate gehienek. Badira patuari, magiari, ulermenaz gaindikoari atea zabalik uzten dioten ipuinak ere. Epairik ez du ematen egileak, nahiz eta iradokitzen duen beharrianek daramatzatela pertsonak sinesmenetara (*Kartak*, *Mamua*). Ironia ikusiko du batek idazkeran. Garratzasuna, besteak. Nire iritzian, harremanetako desorekak dira, izatekotan, konstante bat. Batek maitasunez eman, besteak komenentziaz jaso. Askotarikoak, txoko ezkutuz beteak protagonista denak. Irakurketa aberasgarria eta durduza arazlea, benetan.



## ‘DOKUMENTAZIOA ETA ONDARE BIBLIOGRAFIKOA KOMUNIKAZIOA’

- Koordinatzailea: Teresa Agirreazaldegia Berriozabal.
- Argitaratzailea: EHU.


Ikuspegi askotatik heldu diote egileek izenburuko gaiari: *Biblioteka Nazionalaren ametsa* aztertu du Joan Mari Torrealdai; *Armiarma.com* atariaren berri eman du Mikel Elorzak; *Ba-dok.info*-rena Jon Eskisabelek...



## ‘AZOKA’

- Egilea: Txema Arinas.
- Argitaletxea: Hiria.

«Komedia bufo hutsa» da nobela labor hau, egileak dioenez. Erdi Arora egindako bidaia bat du ardatz nagusi. «Bada ohiko nobela historikoaren parodia moduko zerbait; bada Erdi Arori egindako begiratu xamur eta gogoetatsu bat ere; bada gure egungo nondik norakoekin zerikusia handia duen ikuspegi txiki kritikiko-ironiko bat ere».



## ‘1512. NAFARROA AMETS URRATUA’

- Gidoia: Joseba Asiron.
- Marrazkiak: Martintxo.
- Itzultzailea: Mixel Murua.
- Argitaletxea: Ikasgelak.

Joseba Asironen eta Martintxo komiki bilduma bat osatu dute, Nafarroako Erresumaren azken egunetako historia nafar legitimista baten ikuspegitik kontatzen duena, 1512ko inbasioari eta ondoren etorri zen 17 urteko gerrari erreparatu, bereziki.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Kultur artekoak

Album ilustratu honetan, haur inuit batek bizi den lekua deskribatzen du, bere ohi-turak eta zaletasunak, bere inguruko paisaia eta animaliak... Eta bere inguruan dauden mila zuriak, denak desberdinak. Deskribapen hori era grafiko eta oso sinplean egina dago: «Ni bizi naizen lekuan ez dago zelarik, ezta zuhaitzik eta lorerik ere. Nire inguru guztia lautada amaigabea da, hutsa eta zurizuria». Bistan da: bizipen pertsonaletan oinarritutako testu bat da; oinarritzko ideia bakar hori *Inuiten mila zuriak* azpim-



## ‘INUITEN MILA ZURIAK’

- Idazlea: Isabel Minhos.
- Ilustratzailea: Madalena Matoso.
- Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea.
- Argitaletxea: OQO eta Txalaparta.

rratzeko, lotura narratiborik gabeko irudi sorta eder bat erabiltzen duena.

Idea horretatik abiatuta, iradokitzen zaigu kulturen arteko desberdintasun nagusia begiratzeko moduan egon daitekeela; azken batean, denok garelara berezi bezain arrunt; etorki bereko emaitza berezituak garelara; inuitek euren inguruko zurien ugaritasuna ikusten duten eran, bakoitzak beste inork ez bezala ikusten dituela bere lurraldeak dituen berezitasun propioak.

Testuari lagunduz, collage lan ikusgarri bat ere egin du Matosok, zurien desberdintasunak bilatzen, forma iradokizaleak eraikitzen, abiaduraren moduko kontzeptuen ezaugarri grafikoa lantzen, eta haizearen ufa-den gisako beste hamaika ñabardura erakusten.

Argitaletxe galiziarren eta euskaldunaren arteko lankidetzaren emaitza ikusgarria da lan hau, eta, dudarik gabe, lauzpabost urtetik gorako irakurleen bazka gomendagarria da. ■ **IMANOL MERCERO**

## Atxia motxia

Klis-klasikoak bilduma sortu berriari esker, 80ko hamarkadako lan bitxi hori berriz argitaratua ikusteko parada eskaini zaigu. Izan, lau liburuxkaren berrargitalpena da: *Tximinitik gora*, *Auskalo mendian*, *Titiritero Titirimundi* eta *Elegantzia frantzia*.

Egia zor, jatorrizko lanak ez dira topatzen errazak, eta ahoz ahokotik iritsi zaizkit lau liburuxka haien oroitzapenak.

Liburua zabalduta, ordea, ohartu nahiz testu asko oso ezagunak direla, dela kultur ondarearen ezinbesteko aleak di-



## ‘MARIA GOIKOAK BATBIRULAU’

- Idazlea: Anjel Lertxundi.
- Ilustratzailea: Antton Olariaga.
- Argitaletxea: Alberdania, Erein, Igela.

relako, dela haur literaturako bildumetan berrargitaratutako piezak direlako.

Esan dezadan liburua kanta, esaera, txiste, asmakizun, antzerkitxo eta halakoz osatuta dagoela, Antton Olariagaren ilustrazioen gainean ipiniak gehienetan, eta, beti-beti, testuaren grafiarekin jolasean.

Hain zuzen ere, liburu berezi hori osorik jolasa baita, *berdindionondikirekitzenduzun* erako liburu bat, hurrekin lanean aritzen diren bitartekarietako testu iturri bezainbeste, parranda bihurtzeko haur jolastien irakurketa.

Anjel Lertxundiren ekarpena zera da: tradizioa berriz interpretatzea eta modernizatzea. Olariagarena, berriz, kolore, forma eta irudi erakargarrien bidez jantzi egokia ematea.

Amaitzeko, erakusgarri, zotz egiteko hau: «Dondonite, kabo teniente, dondonel, kapitan koronel, aitona Mañuel, sakristau Paxkuel, sagarra manzana, bela eta kandel, soldadu furriel, fusilak tiro pum, dondonite presenten, fuera, fuera teniente». ■ **I.M.**